

KANALAK

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko agentziaren aplikazioa izango dugu. Aplikazioa honen bidez, bezeroek gure agentziaren informazioa lortuko dute. Hemen, zer nolako zerbitzua eskainiko dugun eta nola funtzionatzen duen gure agentzia guztia ikusi ahalko dute.

Gainera, aplikazio honen bidez, bezeroen datu batzuk izango ditugu. Datu hauen bidez, beste bezeroekin trukea egiteko momentuan segurtasun bat eskainiko diegu guztiei. Hau da, erregistroa egiterakoan pertsona bakoitzak haren datu batzuk sartu beharko dituzte, horrela segurtasun minimo bat eskainiko diegu beste pertsoneri.

Bestalde, bezeroek dituzten kezkak agentziari abiarazteko posta elektronikoa edota telefono bitartez egingo dute. Izan ere, aplikazioaren barruan kezka atal bat egongo da, non bezeroek sartu ahal izango dira eta haien kezkak azaldu. Gero, haien kezken erantzuna jasoko dute langile batengan denbora gutxitan, hau da, bi egun baino lehen, langile batekin hitz egiteko ahalmena izango dute, kezkak argitzeko eta bere bidaia burutzeko arazorik gabe.

Denborarekin, enpresa dirua irabazten hasten duenean, lokal bat erosiko genuke, gure enpresa hor jarduteko. Eta gainera, lokal honetan, bezeroekin elkarrizketak izateko aukera izango ditugu, haien kezka guztietan laguntzeko eta agentziari buruzko informazioa emateko aukera izaten.

Hala ere, sare sozialetan ere influentzia handia izateko helburua dugu, gure bezeroei haien bidez ailegatzeko eta gure agentzia bultzatzeko.